



JORNADAS  
*Las Mujeres en Bizkaia*  
LUCES Y SOMBRAS



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA  
Martitzena, 2019/02/19

**Yolanda de Miguel, TECNALIAren Nanoteknologia Clusterreko  
Zuzendaria**

**“Lidergo postuetan dagozan andreek euren burua  
ezagutuazoteko erantzukizuna daukie, inspirazino  
iturri izateko”**

- *Ikusten dan emakumezko erreferente barik gatzagoa da beste emakume batzuek aginte edo lidergo postuak bilatzea*
- *Emakumea, Lidergoa eta Ekintzailtza mahaiak, etorkizuneko eraldaketa handiei aurre egingo deutseen emakumeak eukitea eta daborduko dagozanak ikusgai bilakatzea eskatzen dau*

“Ez da beti erreza erreferente izango diran emakume liderrak aurkitzea, eta ez da holangorik ez dagolako. Bilatzeko esfortzua egiten bada aurkitu daitekez, baina profil bajua eukiten dabe. Ikusten dan emakumezko erreferente barik gatzagoa da beste emakume batzuek aginte edo lidergo postuak bilatzea, eta egoera horri bukaerea emoteko, uste dot daborduko lidergoan dagozan emakumeek euren burua ezagutuazo behar dabela, inspirazino iturri izateko”, adierazo dau Yolanda de Miguel TECNALIAren Nanoteknologia Clusterreko Zuzendariak, Bizkaiko Batzar Nagusietako berbaldi aretoan gaur egin dan *Emakumea, Lidergoa eta Ekintzailtza* mahai inguruan. Mahaia Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak (RSBAP) antolatu dau, Bizkaiko Batzar Nagusien babesagaz eta lankidetzegaz, zezeileko martitzen guztietan, Bizkaiko emakumeen errealidadearen hainbat alderdiren ganean gogoetea egingo dauen *Emakumeak Bizkaian: Argi-itzalak* Jardunaldien barruan.

Eva Arrilucea – Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Ekonomia Doktorea eta barrikuntza politiketako TECNALIA Think&Do izeneko *think tank*-aren liderrak gidatu eta aurkeztu dau María Jesús Cava Deustuko Unibertsitateko Historia Garaikideko Katedradun eta unibersidade bereko Historian Doktorearen, Elena Guede Cementos Lemonako zuzendariaren, Lourdes Moreno Bolueta Engineering Group-eko gerentearen eta daborduko aitatu dogun Yolanda de Miguelen artean. “Debate honek mezu nagusi bi azaleratu gura ditu: alde batetik, etorkizuneari aurrean izango doguzan eraldaketa handien lider izateko gai diran emakumeak euki beharra, klimaren aldaketea, gizarte arloko desbardintasunak, etab. Eta, bestetik, daborduko lider diran

emakumeak hobeto ikusiazotea, Bizkaiko emakumei erakusteko euren artean erreferenteak dituela”, adierazo dau moderatzaileak.

Debatea, emakumeen ekintzailtza beharrak bete izan dauen lekuaren eta bilakaera historikoaren azterketeagaz hasi da. Holan, María Jesús Cavak, historiagilea dan neurrian, hainbat abagune aztertu ditu, eta horreetan guztietan emakumeek izan daben ekintzailtzarako joerea eta, modu berean, Modernidadean eta Posmodernidadean emakume horreek Bilbon eta Bizkaian euki daben lidergoaren alderdi esanguratsuenak aztertu ditu. Horretarako, Cavak, gure lurraldean emakumeak protagonista izan ziran eta diran negozioen kulturaren ganeko gogoetea gidatu dau eta, ganera, esparru juridikoaren bilakaerara, mentalidadeen historian izandako aldaketetara eta Bilboko merkataritza arloko kulturaren berezitasunetara zuzendu dau begiradea. “Bilbon eta Bizkaian emon diran ekintzailtzen eta lidergoen historiak, argi-ilunak daukazan arren, geratuezina dan emakumeen presentzia erakusten dau”, adierazo dau historiagileak, eta horren ostean, bere esperientzia pertsonala aztertu dau.

Elena Guede Cementos Lemonako zuzendariak, bere aldetik, adierazo dau zementuaren fabrikazioaren sektorearen ikuspegi orokorra “gizonezkoen indarra eta kudeaketea behar dauen zeregin zakarragaz eta astunagaz lotzen dan arren, azken garaietako historiak erakusten dau posible dala laneko arlo hori emakumearen ikuspuntutik lantzea”, eta “emakume guztiek daukiela edozein enpresaren edo negozioaren lider izateko gaitasuna”, gehitu dau. “Ganera, emakumeek industriaren sektorean daukien presentziak hazten jarraitzen dau”. “Konpromisoa, erabagigarritasuna, erantzukizuna eta dedikazioa” dira batez be gizonez osatuta dagon munduan aurrera egiteko aukerea emon deusien trebeziak. “Buruan sorkuntza eta asmakuntza neukazala hazi nintzan, eta Kimikako karrera egin neban, zertan bukatuko neban seguru jakin barik, baina beti lantegi batean behar egiteko asmoagaz. Zorionez, nire familia une oro nire ondoan egon zan, emakumeek aukeratzen ebezan arlo profesionalak zientziatik oso urrun egozan garaian”, gogora ekarri dau zuzendariak.

Lourdes Moreno Bolueta Engineering Group-eko gerenteak adierazo dauenez, bere ibilpidea aztertzean eta atzerantz begiratzean “aurrerapen pertsonala eta profesionala” ikusten ditu, “arriskua erabagiak hartzeko orduan eta hobetzeko etenbako beharra”, baina, modu berean, baita be “alborapen ikusiezina heldu ahal izan jakozan aukeretan, eta jarraitzeko eredu eta mentore faltea”. Bere azalpenaren beste atal batean, –industriako *outsider* eta emakume moduan dauen ikuspuntutik– zelan egiten deutson aurre zuzentzen dauen enpresea eraldatzeko erantzukizunari azaldu dau Morenok, emakumea edo gizona izatea alde batera itzita, ekonomian, eta arlo guztietan, zalantzas beteta dagozan une honeetan.

Yolanda de Miguel TECNALIAko Nanoteknologia Clusterreko Zuzendariak, bere bizitzan inspirazino iturri izan dituan eta “eragina eukiko dauen emakumea izatea posible dala” erakutsi deusien emakumeak gogoratuz hasi dau berbaldia. Guztiz beharrezkoa da emakume liderrak hobeto ikusiazotea. Umezaroan, nire amak zientziarako maitasuna sartu eustan; Sue Gibson kimikari ospetsuari esker kimikari organiko bilakatzea erabagi neban; eta urte batzuk geroago, Onora Oneil baroia, filosofoa eta Lord-en Ganberako kidea, jarraitu beharreko lidergo eredu bilakatu zan niretzat. Emakume horreek ezagutu ez banebazan, nire bidea desbardina izango zan. Inoiz ez da goizegi erreferenteak eukiteko”, adierazo dau De Miguelek. Ganera, TECNALIAko bere esperientzia azaldu dau –bertako nanoteknologia clusterreko ikerlarien %60 baino gehiago emakumeak dira– eta “ikerketan eta garapen teknologikoan gero eta emakume gehiagok hartzen dabela parte” esan dau.



JORNADAS  
**Las Mujeres en Bizkaia**  
LUCES Y SOMBRAS



NOTA DE PRENSA  
Martes, 19/02/2019

**Yolanda de Miguel, Directora del Cluster de Nanotecnología de  
TECNALIA**

## **“Las mujeres en puestos de liderazgo tienen la responsabilidad de darse a conocer para ser fuente de inspiración”**

- ***Sin referentes femeninos visibles es más complicado que otras mujeres persigan posiciones de mando o liderazgo***
- ***La mesa Mujer, Liderazgo y Emprendimiento traslada la necesidad de contar con mujeres líderes que hagan frente a las grandes transformaciones del futuro y visibilizar a las ya existentes***

“No siempre es fácil encontrar mujeres líderes que sean referentes y esa situación no se debe a que no existan. Si se hace un esfuerzo en su búsqueda es posible encontrarlas, pero suelen mantener un perfil bajo. Sin referentes femeninos visibles es más complicado que otras mujeres persigan posiciones de mando o liderazgo y, para acabar con esta situación, considero que las mujeres, que ya se encuentran en esos puestos de líder, tienen la responsabilidad de darse a conocer para ser fuente de inspiración”, ha expuesto Yolanda de Miguel –Directora del Clúster de Nanotecnología de TECNALIA– en la mesa redonda *Mujer, liderazgo y Emprendimiento*, que ha tenido lugar hoy en la sala de conferencias de las Juntas Generales de Bizkaia. La mesa la organiza la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País (RSBAP) con el patrocinio y colaboración de las Juntas Generales de Bizkaia, en el marco de las Jornadas “*Las mujeres en Bizkaia: luces y sombras*” que, a lo largo de todos los martes de febrero, debate sobre distintos aspectos de la realidad de las mujeres vizcaínas.

Eva Arrilucea –Doctora en Economía de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU) y líder del *think tank* de políticas de innovación: TECNALIA *Think&Do*- ha guiado y presentado la conversación entre María Jesús Cava –Catedrática Emérita de Historia Contemporánea en la Universidad de Deusto (UD) y Doctora en Historia de la UD-, Elena Guede –Directora de Cementos Lemona-, Lourdes Moreno –Gerente de *Bolueta Engineering Group*– y la ya mencionada Yolanda de Miguel. “Este debate busca trasladar dos grandes mensajes: por un lado, la necesidad de contar con mujeres capaces de liderar las grandes transformaciones a las que nos tendremos que enfrentar en el futuro, del tipo al cambio climático, desigualdades sociales, etc., y,

por otro, dar una mayor visibilidad a las mujeres que ya desempeñan una labor de líder para mostrar a las vizcaínas que sí cuentan con referentes entre ellas”, ha introducido la moderadora.

El debate ha comenzado con el análisis del papel y la evolución histórica de la acción emprendedora de las mujeres. En este sentido, María Jesús Cava, dada su condición de historiadora, llevó a cabo un análisis de algunas circunstancias en las que ha destacado el papel emprendedor de las mujeres y, a su vez, ha abordado los aspectos más significativos del liderazgo que éstas han ejercido durante la Modernidad y Posmodernidad en Bilbao y Bizkaia. Para ello, Cava ha conducido una reflexión sobre la cultura de negocios que las mujeres protagonizaron y protagonizan en la región y, además, ha dirigido su mirada hacia la evolución del marco jurídico, las transformaciones en la historia de las mentalidades y las peculiaridades de la cultura comercial en Bilbao. “La historia del emprendimiento y liderazgo en Bilbao y Bizkaia muestra una presencia femenina con luces y sombras, pero, en todo caso, imparable”, ha afirmado la historiadora, que, a continuación, ha repasado su propia experiencia profesional.

Por su parte, la directora de Cementos Leona, Elena Guede, ha expuesto cómo a pesar de que la visión generalizada del sector de la fabricación del cemento “se asocia a un trabajo rudo y pesado, que requiere de la fuerza y la gestión de los hombres, la historia reciente está demostrando que es posible abordar este área de trabajo desde un punto de vista femenino” y ha añadido que “todas las mujeres pueden ser líderes en cualquier empresa o negocio. Además, la presencia de mujeres en el sector industrial continúa creciendo”. “Compromiso, determinación, responsabilidad y dedicación” son las habilidades que le han permitido avanzar profesionalmente en un mundo mayoritariamente masculino. “Crecí pensando en crear e inventar y me enrolé en la carrera universitaria de Química sin saber con exactitud en qué acabaría, pero siempre con la predisposición de trabajar en una fábrica. Yo tuve la suerte de que mi familia me apoyó en un momento en el que las áreas profesionales a las que se dedicaban las mujeres distaban mucho de la ciencia”, ha recordado la directora.

La gerente de Bolueta Engineering Group, Lourdes Moreno, ha indicado que al analizar su trayectoria y mirar hacia el pasado ve “progreso personal y profesional, riesgo en la toma de decisiones y un trabajo constante por mejorar”, pero, a su vez, contempla “un sesgo invisible en las oportunidades que le han podido llegar y una falta de modelos y mentores a seguir”. En otro apartado de su exposición, Moreno explicó -desde su punto de vista como *outsider* en la industria y mujer- cómo está afrontando la responsabilidad, independiente al hecho de ser hombre o mujer, de transformar la empresa que dirige, en estos momentos de gran incertidumbre económica y global.

La Directora del Cluster de Nanotecnología de TECNALIA, Yolanda de Miguel, comenzó su intervención recordando a todas aquellas mujeres que, a lo largo de su vida, le han servido de fuente de inspiración y le han demostrado “que es posible ser una mujer influyente”. “Es imprescindible aumentar la visibilidad de las mujeres líderes. En la infancia, mi madre me inculcó el amor por la ciencia; gracias a Sue Gibson -química de renombre- decidí convertirme en química orgánica y, años más tarde, la baronesa Onora Oneil -filósofa y miembro de la Cámara de los Lores- se convirtió en mi modelo de liderazgo a seguir. Si no me hubiese topado con ellas, mi camino habría sido distinto. Nunca es demasiado pronto para tener referentes”, ha indicado de Miguel. Además, explicó su experiencia en TECNALIA -donde más del 60% de los investigadores del cluster de nanotecnologías son mujeres- y afirmó que “cada vez son más las mujeres que participan en la investigación y el desarrollo tecnológico”.